Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Cipriano Sansiñena Irisarri

Etxalar, Nafarroa (1922)



Aurkibidea

Biografia



Etxalarren sortu zen, Zamatelun. Guraso biak Etxalarkoak zituen.

Zintak

ETL-003

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2007-07-03
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

ETL-004

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2007-07-03
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Usategietako lan baldintzak

- **Erref**: ETL-003/001
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:00:02. **Bukatu**: 00:05:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usategietan 25 urte egin zituen lanean. Nola hasi zen azaltzen du. Han “diktadura gogorra” zela erraten du. Esate baterako, hango zaharrek edaten zuten ardoa gazteek eraman behar zuten bizkarrean. Ura ere beraiek eraman behar zieten baldetan. Baina 30 urte baino gehiago zituela, aurre egin zien. Gazteei zaharrek irabazten zutenaren erdia ordaintzen zieten. Egun batean, ados ez zeudela esan eta %85 irabaztea aldarrikatu zuten

2. Usategietako lanpostua gorde

- **Erref**: ETL-003/002
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:05:02. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zein mendietan izan zen azaltzen du. Soldadu joan zenean, lanpostua ez galtzeko, norbait paratu behar izan zuen bere ordez. Lehenbiziko bere aita joan zen

3. Korneta seinaleak

- **Erref**: ETL-003/003
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:09:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usoak nondik heltzen ziren arabera, korneta dei ezberdinak izaten ziren: hiru toke larrealdera, toke bat erdira eta bi toke Domikora. Altueraren eta multzoaren tamainaren arabera ere dei mota desberdinak zeuden. Korneten jatorria azaltzen du.

4. Hotza

- **Erref**: ETL-003/004
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:09:02. **Bukatu**: 00:10:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Mendian hotza egiten zuela-eta, sua egin zuen, baina arbolak ere sua hartu zuen. Gero, botila bat ardo multa (isuna) jarri zioten.

5. Usategietan lan egiteko beharrezko papera

- **Erref**: ETL-003/006
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:12:06. **Bukatu**: 00:12:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usategietan lanean aritzeko paper bat behar zuten. Kontrabandoen aferengatik bati ez zioten eman.

6. Isunak

- **Erref**: ETL-003/007
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:12:53. **Bukatu**: 00:13:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lo hartzen bazenuen, botila bat ardoko isuna ordaindu behar zenuen. Bitan harrapatzen bazintuzten, bi botila.

7. Iratze metak. Anekdota

- **Erref**: ETL-003/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:15:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bere aitari usategietako langile batek iratzea ebatsi zioneko anekdota kontatzen du. Bere aitak meta-ziriak egiten zituen.

8. Etxolarik ez

- **Erref**: ETL-003/009
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:15:27. **Bukatu**: 00:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehenbizian ezin zuten etxolarik izan; txapa batzuen azpian atseden hartzen zuten.

9. Nagusiak usategietara joaten zirenean

- **Erref**: ETL-003/010
- **Iraupena**: 0:04:51. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:21:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Egun batzuetan herriko lau lagun joaten ziren: harakina (haragia eramaten zuena), Periko nagusia, Jenaro eta Batista usozalea. Haiek etortzen zirenean, sukaldetik alde egin behar zuten; ezin ziren barruan egon nahiz eta eguraldi txarra izan.

10. 1939ko haize gogorra

- **Erref**: ETL-003/012
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:21:08. **Bukatu**: 00:21:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
1939an haize gogorrak arbola anitz bota zituen. Periko Arribillagak egur hori aprobetxatu zuen.

11. Lanpostu aldaketa

- **Erref**: ETL-003/014
- **Iraupena**: 0:07:21. **Hasi**: 00:22:36. **Bukatu**: 00:29:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Langile batzuk mendian urrun, sareetatik urrun 25 urte inguru aritu ondoren, bi mutiko berri sartu ziren (gizon zaharren semeak) eta sareetan paratu zituzten. Bera eta beste bat kexatu ziren, sareetan lan egiteko eskubide handiago zutelakoan (25 eta 22 urte ondoren).

12. Usategietan sartzea gauza handia zen

- **Erref**: ETL-003/016
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:30:45. **Bukatu**: 00:31:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usategietan sartzea gauza handia zen. Normalean familiako jendea sartzen zuten.

13. Usategietako nagusiak

- **Erref**: ETL-003/017
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:31:36. **Bukatu**: 00:32:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usategietako nagusiak lau ziren: bi hemen eta beste bi Iparraldean.

14. Preso eraman zutenekoa

- **Erref**: ETL-003/018
- **Iraupena**: 0:05:04. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:37:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lanean ari zela, sei “guardia móviles” azaldu zitzaizkion. Paperak eskatu zizkioten, baina ez zituen. Beraz, preso eraman zuten eta ez zioten abisurik ematen utzi. Iruritako errekan kamioi zahar batean sartu zuten eta bertan usategietako beste langile bat zegoen atxilotua. Sarako kuartelera eraman zituzten. Azkenean, alkatea beraien kargu egin zen eta libre utzi zituzten. Bueltan mugaldeko buruzagia zen koronelarengana joan ziren eta honek zelako tratua jasan zuten galdetu zien.

15. Usategietako langileen eginkizunak

- **Erref**: ETL-003/020
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:37:23. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usategietako langileek eginkizun ezberdinak zituzten: bat “trapa” zen, buruzagia; bertze bat “trapa-biela”, bertze bat “biel-trapa” eta “haritza”; hauek ziren gizon zaharren lanpostuak (paletak botatzen zituen mutikoa izan ezik) .

16. Paletak

- **Erref**: ETL-003/021
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:39:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Paletak nolakoak ziren azaltzen du.

17. Gizonen eta mutikoen arteko harremana

- **Erref**: ETL-003/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:41:13. **Bukatu**: 00:42:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gizonen eta mutikoen arteko harremana zaila zen. Gizonek beti agintzen zieten mutikoei. Hiru gizonekin (“hiru errege” erraten zieten) gertatutakoa azaltzen du: beraientzako ardoa mendira eramateko esan zioten eta berak ezetz esan zien.

18. Usoak ehizatzeko prozedura

- **Erref**: ETL-003/024
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:42:57. **Bukatu**: 00:46:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Usoak ehizatzeko prozedura azaltzen du. Urrundikan hasten ziren usoak biltzen, bideratzen, “xatar” izeneko trapu batekin jotzen zutela. Usoak biltzen zituztenean, paletak botatzen zizkieten eta, gehienetan, beheiti etortzen ziren. Trapan buruzagia izaten zen. Usoak sareetatik ateratzen zituztenean, lepotik ausiki eta burua okertzen zizkieten.

19. Abata. Usoak herrira eraman

- **Erref**: ETL-003/025
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:46:27. **Bukatu**: 00:47:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Uso batzuk erreklamotarako (abata) uzten ziren. Buruan eramaten zituzten. Iruñeko bat uso eske etorri zeneko anekdota kontatzen du.

20. Zenbat diru irabazten zuten

- **Erref**: ETL-003/026
- **Iraupena**: 0:04:53. **Hasi**: 00:47:49. **Bukatu**: 00:52:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
18.000 pezeta inguru jasotzen zen, Iratin ibiltzen ziren mutilek hiru urtetan jasotzen zutena. Baina haiei erdia (%50) ematen zieten. Urteberri egunean kobratzen zen. Urtean hiru “txatar” erabiltzen zituzten eta bakoitzak bere poltsikotik ez ordaintzea aldarrikatu zuen.

21. Ardoa

- **Erref**: ETL-003/027
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:52:42. **Bukatu**: 00:54:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lanean edaten zuten ardoa nondik eramaten zuten eta bestelako kontuak azaltzen ditu.

22. Zenbat uso harrapatzen zen

- **Erref**: ETL-003/029
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:54:57. **Bukatu**: 00:56:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Uso gehien harrapatu zutenekoa: 1400 dozena. 200 dozena uso hartu zituzten egunean, mutilei launa eman eta gizonen artean zortzina banatu zituzten.

23. Usoak non saltzen ziren

- **Erref**: ETL-003/030
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:56:16. **Bukatu**: 00:58:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen dena Espainian saltzen zuten, gero frantsesak ere hasi ziren erosten. Zaila zen usoak mugaz bestaldera eramatea.

24. Dena aldatu da

- **Erref**: ETL-003/031
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:58:17. **Bukatu**: 01:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gaur egun oso uso gutxi etortzen da, lehengoarekin konparatuta, hamarretik bat besterik ez. Harrapatzeko modua ere asko aldatu da.

25. Etxolan ere gizonak eta mutilak bereizirik

- **Erref**: ETL-004/001
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gizonek gela berezia zuten, jantokia mahai eder batekin. Mutikoek, berriz,

sukaldean jaten zuten: bi bankutan eta kamaina gainean banatuta. Gero mahai bat paratu zuten. Anekdota bat kontatzen du.

26. Propina

- **Erref**: ETL-004/003
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:03:16. **Bukatu**: 00:04:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Etxolan bazegoen propinen (eskupeko) botea, baina mutilei ez zieten deus ematen. Gizonek beraien ardoa erosteko erabiltzen omen zuten.

27. 100 dozena uso galdu

- **Erref**: ETL-004/004
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:04:14. **Bukatu**: 00:05:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Baziren hamabi egun usorik ez zela heldu eta jaitsi ziren. Gero egunkarietan berria azaldu zen: “Ehun dozena uso galdu zituzten, Lesakako ferietara joan zirelako”.

28. Usoak nola eramaten zituzten

- **Erref**: ETL-004/006
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bizirik zeuden usoak metro eta erdiko saskietan eramaten zituzten bi gizonen artean, buruan paratuta; 50 uso (25 kilo) inguru eramaten zituzten. Hilik zeuden usoak zakutan eramaten zituzten: 100 bat uso, 50 kilo inguru.

29. Jatekoa

- **Erref**: ETL-004/007
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:07:13. **Bukatu**: 00:07:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Jatekoa etxetik eramaten zuten mutikoek.

30. Tiro egitera aberatsak joaten ziren

- **Erref**: ETL-004/008
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:07:37. **Bukatu**: 00:09:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen, aberatsak bakarrik joaten ziren tiro egitera. Aberats batzuen etxean ikusi zuen telebista aurrenekoz.

31. Sarako errenta eta segurua

- **Erref**: ETL-004/009
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:09:58. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen, Sarako errenta beraiek ordaindu behar zuten (orain, berriz, Udalak ordaintzen du); segurua ere nagusiari ordaindu behar zioten. Ez zuten jornalik (orain bai), harrapatzen zenaren arabera irabazten zuten. Hondar aldera larri ibiltzen ziren eta berak lana utzi zuen.

32. Kanpoko jendea. Hirugarren igandea

- **Erref**: ETL-004/011
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:14:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Fama handia zuen Etxalarko usategia. Bilbotik eta Frantziatik etortzen zen jendea. Urriaren hirugarren igandean bailea egiten zen; jende anitz biltzen zenez, ezin zen usorik harrapatu.

33. Gerra 1

- **Erref**: ETL-004/012
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:14:17. **Bukatu**: 00:15:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hamalau urte zituen gerra hasi zelarik. Urte beltzak izan ziren; gosea eta falanjistak etorri zirela gogoratzen du. Orduan hasi zen esnetegian lanean: goizeko bortzetan hasten zen eta hiru pezeta besterik ez zuen irabazten. Ez zen dirurik

34. Esnetegia. Kaseina

- **Erref**: ETL-004/014
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:17:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Esnetegian kaseina nola egiten zuten azaltzen du: makina batekin esneari gaina kentzen zioten, gurina egiteko, eta gelditzen zena bidoi handi batera

joaten zen. Biharamunean, kaldera piztu behar zen eta berotzen zen bitartean bueltak eman; gero idortzen paratzen zen kaseina hori eta, azkenik, makina batekin xehetzen zen. Gelditzen zena, gazura zen eta zerrientzat saltzen zen. Orduan 1000 litro esne inguru biltzen zen; etxe guztietan izaten ziren behiak

35. Gerra 2

- **Erref**: ETL-004/015
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:17:57. **Bukatu**: 00:18:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gerra garaian ez zen izaten ogirik; baldin bazen, opila jaten zen. Errazionamendua eta “rekisak” (konfiskatze) izaten ziren.

36. Antxolokuetako besta

- **Erref**: ETL-004/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:18:32. **Bukatu**: 00:20:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Antxolokuetako errepidean besta bat egiten zen. Haiek egindako banderinak paratzen zituzten, baina erre zituzten eta zalaparta handia izan zen gero ordaintzeko. Andre Maria egunaren ondoren izaten zen besta. Mahaiak paratzen zituzten eta bildotsa jaten zuten.

37. Santa Kruz

- **Erref**: ETL-004/017
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:20:37. **Bukatu**: 00:21:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Santa Kruz egunean ermitara joaten ziren gaztetan.

38. Bederatzi anai-arreba

- **Erref**: ETL-004/018
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:21:44. **Bukatu**: 00:22:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bederatzi anai-arreba ziren. Bi arreba Uruguaira, beste bi arreba Frantziara eta hiru anaia Iparramerikara joan ziren. Bera bakarrik gelditu zen etxean

39. Ela-ela 1

- **Erref**: ETL-004/019

- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:22:34. **Bukatu**: 00:24:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Beraientzat ela-ela oso garrantzitsua zen, garai hartan laranja bat gauza handia baitzen. Nondik joaten ziren azaltzen du.

40. Ela-ela 2

- **Erref**: ETL-004/021
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:24:54. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Ela-ela kantaren letra erraten du: “Ela-ela, nor da nor da, ni naiz urteberri, zer ekarri berri, uraren gaina, bakea eta osasuna, etxekoandrea ona, nagusia hobea, txantxilipitona, goiz afari ona, kupelaren barrenean, mama gozo, haurra jostatzeko, tira-tira artilleria...”.

41. Egurra presara

- **Erref**: ETL-004/023
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:26:03. **Bukatu**: 00:27:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Etxalarko oihanean lanean aritu zen arbolak botatzen. Egurra presara botatzen zuten eta presa betetzen zenean, konporta irekitzen zuten. Beheko presaraino eramaten zen egurra. Lan gogorra zen, bustitzen ziren eta hotzak egoten ziren; zortzi duroko jornala jasotzen zuten.

42. Afrikan soldadu

- **Erref**: ETL-004/025
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:29:01. **Bukatu**: 00:31:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Afrikan hiru urtez soldadu egon zen. Paludismoa harrapatu eta oso gaizki ibili zen; bi hilabeteko permisoa (baimena) eman zioten, baina, makien afera hasi zela-eta, bertan behera utzi zuten. Denetarik zegoen: zorriak, (kukusoak) arkakusoak, txintxeak (zimitzak), ladillak (potrozorriak), eta abar.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-18

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com